

## BESTELAKO XEDAPENAK

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

### 2070

*EBAZPENA, 2025eko apirilaren 24koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2025erako Barne-Ekintzaile laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen.*

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren mendeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, eta EAEn industria- eta enpresa-arloko jarduera bultzatzera bideratutako jardunbideak bideratzeko eta lehiakortasuneko bektore gisa honako hauen arteko trantsizioak Euskadiko enpresetan txertatzen laguntzeko ardura du: teknologiko-digitala, energetikoa-ingurumenekoa eta demografikoa-gizartekoa. Horretarako, enpresetan inbertsioa, berrikuntza, nazioartekotzea eta jarduera ekintzailea sustatzea bultzatzen du.

Horren harira, SPRIk ekintzailera eta barne-ekintzailera laguntzeko bideratutako hainbat jarduketa garatu ditu. Horri esker, enpresa-ekimen berriei behar duten laguntza eskaini die. Helburua euren beharren neurria egindako lagun egite osoa eta malgua eskaintzea da, merkatuan abian jartzeko, hazteko eta arrakastaz finkatzeko. Halaber, proiektuek eskatzen duten hasierako finantzaketa eta, bereziki, epe luzearako finantzaketa lortzea ahalbidetu nahi da.

Ondorioz, Barne-Ekintzaile laguntza-programak finantza-laguntza eman nahi die enpresa eratu berriek gidatzen dituzten eta BIC baten tutoretzapean dauden enpresa-proiektu berritzaile edo oinarri teknologikoko, eta dibertsifikazio dakarten proiektu berriei, ahal dela, industria-arloko proiektuei edo prozesu-produktu horiei lotutako zerbitzuakoei, ideia umotzeko eta enpresa abian jartzeko faseetarako.

Horrela, programak laguntzak aurreikusten ditu kultura eta sistema ekintzailea ezartzeko, eta enpresa berrien bideragarritasuna aztertu, abian jarri eta umotzeko prozesu osoan lagun egiteko, jarduerak kokatzeko aholkularitza eta azpiegiturak eskaintzen ditu; horretaz gain, enpresa-plana gauzatzeko beharrezko inbertsioen finantzaketa lortzeko bideak aurkitzea errazten du.

Bestalde, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen («DAEL») 7.2.a) artikuluan ezartzen duenez, lege horretan aipatzen diren dirulaguntzen kudeaketa eta ematea publizitatearen printzipioaren arabera egin behar dira, besteak beste. Era berean, DAELren 8.3 artikulua ezartzen du dirulaguntza mota bakoitzaren edo dirulaguntzen programa bakoitzaren oinarri arautzaileak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar direla.

SPRIko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez, programari zegokion gastua baimendu zen.

Hori dela bide,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— 2025erako Barne-Ekintzaile laguntza-programari dagozkion oinarri arautzaileak eta deialdia onestea. Horren edukia eranskin gisa gehitu da Ebazpen honetan.

Bigarrena.— 2025erako Barne-Ekintzaile programari dagozkion oinarri arautzaileak onartzen dituen ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratzea.

Hirugarrena.— Ebazpen honen kontra berraztertze-errekurtsoa jar daiteke SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek eragina izango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bilbao, 2025eko apirilaren 24a.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusia,  
JON ANSOLEAGA UGARTE.

## ERANSKINA

2025ERA KO BARNE-EKINTZAILE LAGUNTZA PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN  
OINARRIAK

Ekintzailatza eta barne-ekintzailatza funtsezko politikak izan dira euskal administrazio publikoen zatitza. Horrela, hainbat plan eta programa onetsi dira ekintzailatza modu integralean bultzatzeko, gero eta proiektu, enpresa eta enplegu lehiakor eta jasangarri gehiago sortu eta haz daitezen, bereziki etorkizuneko sektoreetan, Euskal Autonomia Erkidegoko eraldaketa ekonomiko eta sozialaren etapa berri bat sortuz.

Euskadiko ekintzailatza identifikatutako erronken artean dago «arrantza-leku» eta iturrietatik sortutako ideien eta ekimen berrien masa kritikoa eta kalitatea handitzea, proiektu bakoitzaren behar espezifikoak erantzunez. Finantza-eraketarako eta inbertitzeko aukerak eskaintzen zaizkie jaiotako, abiarazi, hazi eta finkatzeko potentziala duten proiektuei; horretaz gain, merkatuan sartzeko eta «lehen bezeroak» lortzeko aukerak ematen zaizkie proiektu ekintzaileei, batez ere etorkizuneko sektoreetan potentzial handiena duten proiektuei.

EAEko historian zehar, barne-ekintzailatza formula bikaina izan da enpresa-ehuna berrasmatu eta eraldatzeko, erakundeak eraberritu eta birsortzeko eta plantilletan eskuragarri dagoen giza kapitala ekintzailea baliatzeko. Pertsona eta erakunde ekintzaileei laguntzeko apustua herrialde osoaren konpromisoa da oraindik, eta, horretarako, inplikaturako erakunde eta eragile guztien arteko elkarlana bultzatzen jarraitu nahi da, uste sendoa baitugu enpresa-ekimen berritzaile berriak sortzea giltzarri dela gure erkidegoak etorkizunean hazten jarrai dezan.

Horregatik guztiagatik, gure enpresa-sare sendoa ere funtsezkoa da, eta hala izaten jarraitu behar du, enpresa-ekimen berriak sortzeko eta gure hazkunde ekonomikoaren ereduaren egitura-aldaketan aurrera egiteko, ezagutza-jardura trinkoak, teknologia berriak eta zerbitzu aurreratuak sartuz, eta ekintzailatza-sare global eta lehiakorra garatuz.

Euskadiko Enpresa eta Berrikuntza Zentroek (BIC) parte-hartze handia dute programan, ekintzaileei eta enpresak sortzeari laguntzeko tresna gisa duten eginkizuna dela eta. Zentro horiek enpresa berrien heltzeko eta abian jartzeko prozesu osoan lagun egiten dute, enpresen jarduerak kokatzeko aholkularitza eta azpiegiturak eskaintzeaz gain.

Programa bat dator Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin, Euskadik 2030 Agendari (Nazio Batuek 2015eko irailaren 25ean onetsia) Garapen Jasangarrirako egindako ekarpenarekin. Horietan, enpresak oinarritzko eginkizuna betetzera gonbidatzen dira; hori, aldi berean, ardura eta aukera paregabea da, negozio baten helburuak ekitatekoekin eta jasangarritasunekoekin lortzeko. Laburbilduz, Garapen Jasangarrirako Helburuek (GJH) aukera ematen dute garapen jasangarriaren arloko munduko erronka handienei aurre egitea ahalbidetuko duten soluzioak eta teknologia garatzeko eta ezartzeko. Era berean, adierazi behar da programa hau erakundearen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dagoela, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun sailburuaren 2025eko urtarrilaren 24ko erabakiaren bidez onetsia eta erakundearen gardentasunaren atarian argitaratuta dagoena, eta Planaren helburu hau lortzen laguntzen du: «Berrikuntza irekiko eta barne-ekintzailatza industrialeko prozesuen eta teknologia- edo berrikuntza-oinarriko zerbitzu lotuen sistematizazioa bultzatzea».

## 1. artikulua.– Xedea.

Oinarri hauen xedea da euskal enpresen barne-ekintzailatza jarduerarako laguntza arautzea, barne-ekintzailatza jardueratzat hartuz euskal enpresetan egindako jardura ekintzailea, enpresa-proiektu berriak sustatzeko, ideia umotzeko eta EAEko enpresa abian jartzeko faseetan.

Barne-ekintzailletza proiektu horiek enpresaren egungo jarduera dibertsifikatzea ekarri behar dute, berritzaileak edo oinarri teknologikokoak izan behar dute, industrialak edo produktu-prozesu industrialari lotutako zerbitzuenak izan behar dute, eta EAEn dauden «Business Innovation Center»etako (BIC) baten tutoretzaren pean egon behar dute.

Laguntza hori honako laguntza-mota hauen bidez gauzatuko da:

– 0. ildoak: negozio berriak sortzeko plan bat garatzeko laguntza, barne hartuko dituen jarduera ekonomiko berriak sortzeko sustapen jarraitu eta sistematizaturako beharrekiko printzipioak, antolakuntza-kultura, sistematika eta lankidetzak. Hala, enpresak, ahal bada, 1. ildoan aurkezteko detektatutako lehentasunezko aukera baten aurretiazko analisia egingo da.

– 1. ildoak: enpresari ideia umotzeko eta enpresa-plana egiteko prozesuan lagun egiteko laguntza.

– 2. ildoak: 1. ildoko barne-ekintzailletzako proiektuek sortutako enpresa berriei zuzendutako laguntza, ezarritako enpresa-plana gauzatzeko behar diren inbertsioak errazago finantzatzeko.

2. artikulua.– Laguntzen izaera.

1.– Laguntza horiek behar bezala jasotako eskaerak ondoz ondo emateko prozeduraren arabera emango dira. Banaka eta ordenatuta ebatziko dira, oinarri hauetan eskatutako dokumentazio guztiarekin eskaera osatu den unearen arabera.

2.– Programa honen bidez ematen diren laguntzak garrantzi gutxikoak edo minimis laguntzak dira, eta beraz, Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2831/2023 (EB) Erregelamenduak («2831/2023 Erregelamendua») ezarritakoaren mende daude.

3.– Programa honen esparruan emandako dirulaguntzak ez daude zuzen lotuta esportatutako kopuruei, banaketa-sare bat ezarri eta ustiatzeari edo esportazioarekin zerikusia duten bestelako gastu arruntei.

3. artikulua.– Terminoak eta definizioak.

1.– Enpresa eta Berrikuntza Zentroa – Business Innovation Center (BIC): Enpresa- eta berrikuntza-zentroak dira, irabazi-asmorik gabekoak; ekintzaileei eta enpresei laguntza ematen diete, enpresa-ekimen berritzaileak edo oinarri teknologikoko enpresa-ekimenak sustatzeko eta haien garapena sustatzeko. BICak tresna dinamizatzaileak dira, enpresa-proiektu berriak ekoizpen-sarean sartzeko, eta haien helburua da proiektu horien etorkizunari arrakasta-berme onenekin ekitea, berrikuntzaren eta lehiakortasunaren aldeko konpromisoaren bidez.

2.– Aholkularitza espezializatua: enpresei lagun egitearen arloan esperientzia duten aholkularitza-enpresa edo -profesionala, enpresa onuradunari aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak ematen dizkiona Negozio Berriak Sortzeko Plana prestatu eta abian jartzeko prozesuan.

3.– Negozio Berriak Sortzeko Plana (NBSP): enpresaren lehiakortasun-egoeraren eta negozio berrien diagnostiko laburra deskribatzen duen dokumentua. Horrez gain, jarduera ekonomiko berria etengabe sortzeko gakoak zehazten dira. Bertan, negozio berrien etengabeko sustapenerako beharrezko printzipioak, antolakuntza-kultura, sistematika eta lankidetzak zehazten dira.

4.– NBSP abian jartzeko txostena: dokumentu horrek enpresak plana abian jartzeko aurreikusitako lehentasunezko ekintzak identifikatzen ditu, baita honako hauek ere: abian jartzeko baliabideak, enpresak lehentasunezkoztat jo duen negozio berriaren aukera zehatzaren aurretiazko balorazioa eta deskribapen laburra, prozesuaren autoebaluazio laburra eta enpresak ikasitako lezioak.

5.– Enpresa-plana: negozio-aukera bat identifikatu, deskribatu eta aztertzen duen dokumentua, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertuta. Plan horretan negozio-aukera hori enpresa-proiektu bideragarri bihurtzeko behar diren prozedura eta estrategia guztiak garatzen dira.

6.– Enpresa Txiki eta Ertaina (ETE): Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan ezarritakoaren arabera (2003-05-20ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, L 124 zenbakia, 0036-0041 or.).

7.– Erakunde laguntzaileak: oinarri arautzaile hauetan araututako laguntzen ondorioetarako, erakunde laguntzaile izendatzen dira EAEn dauden BICak eta Luzaro EFC SA; betiere, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko DAELn ezarritakoaren arabera. Horrez gain, arau honetan eta lankidetzaz hitzarmenean jasotako zehaztasunak beteko dira.

#### 4. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– 2025ean laguntzak emateko programa honetara bideratutako baliabide ekonomikoak 800.000 eurokoak dira, eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren aurrekontuetan beren-beregi ezarritako aurrekontu-zuzkiduretatik etorriko dira. Aurrekontu horiek EAEko 2025eko Aurrekontu Orokorretan sartuta daude.

2.– Funts hauek mugatuak direnez, laguntzak eskatu eta ematea ahalik eta lasterren egitea nahi du programak; beraz, laguntzak adjudikatzeko, espedienteak osorik dagoen unearen arabera egingo da, modu ordenatuan, eta ebazpen baten bidez ukatuko dira laguntzak, Programarako gehieneko zuzkidura gainditzen badute.

3.– Programara bideratutako funtsak agortuz gero, Programa amaitu egingo da, eta horren berri emango da SPRIren zuzendaritza nagusiaren ebazpen baten bidez eta webgunean ([www.spri.eus](http://www.spri.eus)), eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

4.– Aurrekontu-kreditua agortutakoan, ezingo da laguntza berririk eman, eta berariaz atzera botako dira aurkeztu bai, baina ebazteko dauden eskariak.

#### 5. artikulua.– Erakunde onuradunak eta laguntzen onuradun izateko baldintzak.

##### 1.– Negozio Berriak Sortzeko Planaren erakunde onuradunak (0. ildoak).

Negozio Berriak Sortzeko Plana garatzeko laguntzaren onuradunak izan ahalko dira EAEn egoitza soziala edo gutxienez jarduera-zentro bat duten pertsona juridikoak, baldin eta 20 pertsona edo gehiagoko plantilla badute eskaera egiteko unean. Horrez gain, lanaldi osoen urteko balio-kideak pertsona gisa zenbatuko dira, eta gutxienez 2.000.000 euroko urteko negozio-bolumena izan beharko du erakundeak. Gainera, enpresa-arloko, oinarri teknologikoko edo produktu-prozesu industrialarekin lotutako industria-eta zerbitzu-proiektuei buruzko proiektu-ideia berritzaile bat izan beharko dute, eta EAEn abiarazi beharko da.

##### 2.– Lagun egiteko laguntzaren erakunde onuradunak (1. ildoak).

Egoitza soziala edo gutxienez jarduera-zentro bat EAEn duten pertsona juridikoak izan daitezke lagun egiteko laguntzaren onuradun, baldin eta enpresa-proiektu berritzailea edo industria- eta

teknologia-oinarrikoa edo produktu-prozesu industrialei lotutako zerbitzuetakoa bada, eta EAEn abiarazi nahi bada.

3.– Finantzaketa lortzea errazteko laguntzaren erakunde onuradunak (2. ildoak).

EAEn enpresa-plana gauzatzeko konpromisoa hartzen duten eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona juridikoek bakarrik jaso ahal izango dituzte finantzaketa eskuratzea errazteko laguntzak:

a) Sortu berriak izatea, hau da, 2024ko urtarrilaren 1aren ondoren eratutako enpresa guztiak, data hori barne.

b) Gutxienez 3 enplegu sortuko direla aurreikustea 3 urteko epean.

c) ETEa izatea.

d) Altan emanda egotea Euskadiko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokien industriako epigrafean.

e) Barne-ekintzailatza prozesu batetik etortzea, hau da, EAEko enpresen barruan egindako jarduera ekintzaile batetik, enpresa-proiektu berriak sustatzeko, ideia umotzeko eta EAEn enpresa abian jartzeko faseetan.

4.– Hiru ildoetako edozeinetan, honako hauek ezin izango dira deialdiaren laguntzen onuradun izan:

a) Sektore publikoren bateko kide direnak, aplikatu beharreko erakunde-sailkapeneko arauen arabera.

b) DAELren 13. artikuluan aurreikusitako egoera eragozleren batean dauden erakundeak.

Zehazki, eskatzaileek zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzekoak egunean dituztela ulertuko da, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan aurreikusitako kasuetan. Hala, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean dituztela ulertuko da zorrak zatikatuta edo geroratuta eta bermatuta daudenean edo itzulketa-ebazpena aurkaratzeagatik etetea erabaki denean.

c) Enpresa-proiektu berrien sustapenaren, inkubazioaren edo azelerazioaren arloetan jarduera garatzen dutenak.

d) Laguntza bat legez kontraktatzat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeke agindu baten zain daudenak.

e) LGTBIfobia gauzatu, bultzatu edo sustatu dutenak, leheneratzeko terapiak sustatu edo egitea barne, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

f) 2. ildoaren kasuan bakarrik, abenduaren 29ko 3/2004 Legean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituztenean, aurreikusitako ordainketa-epeak ez betetzea.

5.– Eskabidea aurkezten denetik emandako laguntza likidatu arte bete beharko dira laguntza ekonomikoaren onuradun izateko aurreko ataletan adierazitako eskakizunak (DAELren 13.1.b) artikuluan aurreikusitako lehiaketa-egoerei buruzko ez lehiatzeko debekuaren salbuespenarekin).

6.– Aurreko paragrafoetan aurreikusitako betekizunak honela egiaztatuko dira:

a) SPRIk ofizioz egiaztatuko du baldintza hauek betetzen direla:

– Jarduera zentro bat dutela EAEn, non proiektuak eragina izango duen.

– Zerga-betebeharra eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharra egunean dituztela.

– Altan emanda daudela Euskadiko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokien industriako epigrafean.

Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, ondorioz, kasuan kasuko organo eskudunak emandako administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko ditu.

b) 30.000 eurotik gorako laguntza-eskaerarako, erantzukizunpeko adierazpena edo, hala badagokio, KAEOn inskribatutako auditorearen ziurtagiria, edo ordaintzeko legezko epeei dagokien DLoren 13.3 bis artikulua betetzeari buruz adostutako prozeduren txostena, agindu horretan zehaztutako baldintzetan.

c) Gainerako betekizunak egiaztatzeko, 14. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da, edo, bestela, erantzukizunpeko adierazpena, oinarri hauei eranskin gisa erantsi zaien eredu normalizatuaren arabera. Bigarren kasu horretan, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen horretan adierazitakoa egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu SPRIk hala eskatzen dionean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritako eskakizunak eta DAELren 13.9 artikuluan aurreikusitako eskakizunak betez. Erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatutako baldintzak egiazkoak direla egiaztatu ahal izango da, hala badagokio, ikuskapen-bisitan edo dokumentu-eskaeran.

6. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

Honako hauek hartuko dira diruz lagun daitezkeen jardueratzat:

0. ildo: Negozio Berriak Sortzeko Planaren prestaketa, barne hartuko dituen jarduera ekonomiko berriak sortzeko sustapen jarraiturako beharrezko printzipioak, antolakuntza-kultura, sistematika eta lankidetzak. Laguntza hori itzuli beharrik gabeko dirulaguntza da.

1. ildo: enpresari lagun egin ideia umotzeko eta enpresa-plana egiteko prozesuan. Laguntza hori itzuli beharrik gabeko dirulaguntza da.

2. ildo: enpresa-plana gauzatzeko behar diren inbertsioak finantzatzeko laguntza ematea, bai eta inbertsio horiek gauzatzeko ere.

7. artikulua.– Negozio Berriak Sortzeko Planaren prestaketan diruz lagun daitezkeen gastuak (0. ildo).

1.– Negozio Berriak Sortzeko Planaren diagnostikoa egiteko, diseinatzeko eta abian jartzeko prozesuan lagun egiteko laguntzari begira, hauek hartuko dira gastu hautagarritzat:

– Negozio Berriak Sortzeko Planerako aholkularitza tekniko aditurako gastuak. Honako atal hauek jaso behar ditu:

a) Enpresaren egoera lehiakorraren eta negozio berrien diagnostiko laburra.

b) Negozio Berriak Sortzeko Planaren diseinua. Horrek, era berean, honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

i.– Negozio berrien arloko «mandamentuak» edo printzipioak.

ii.– Negozio berrien antolamendua (organigrama, funtzioak, pertsonen parte-hartzea).

iii.– Negozio berrien sistematika.

– Sistematikaren edo negozio berriak kudeatzeko prozesuaren diseinua eta berrikuspena.

– Lehentasunezko aukeren identifikazioa eta intereseko eragileen mapa eta lehentasunezko kontaktuen agenda.

– Plana abian jartzeko txostenak honako eduki hauetakoren bat jaso beharko du, proiektuari dagokionaren arabera:

a) Plana abian jartzeko lehentasunezko ekintzak.

b) Enpresak abian jartzeko konprometitutako baliabideak.

c) Negozio berri bat sortzeko aukera zehatz baten laburpen laburra eta balorazioa, programaren 1. ildoan aurkezteko.

d) Prozesuaren autoebaluazioa eta enpresak ikasitako lezioak.

2.– Diruz lagun daitezkeen gastuak proiektuaren BIC tutoreak onetsi beharko ditu, eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Laguntza-eskaera egin ondoren eta gehienez ere 12 hilabeteko epean sortu beharko dira. SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak laguntza emateko Ebazpenaren aurretik egin-dako gastuak hautagarritzat jo ahalko ditu Ebazpenean, proiektuari hasiera eman ondoren, betiere 2025eko urtarrilaren 1aren ondoren egiten badira. Kasu horretan, 12 hilabeteko epea hautagarritzat jotako lehen gastuaren sortzapen-datatik aurrera hasiko da.

b) Ez da gastu hautagarritzat joko fakturan jasotako balio erantsiaren gaineko zerga.

c) Aurkeztutako proiektuaren arloan aholkularitza adituak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

i.– Ezingo dira izan Administrazio Publikoen mendeko edo horiekin lotutako izaera juridiko propioko erakundeak.

ii.– Ezingo dute loturarik izan, ekintza edo parte-hartzeen bidez laguntzaren eskatzailearekin edo lankidetzaproiektuan sartutako enpresetako batekin. Halaber, ezingo dituzte horiek administratu, zuzenean edo zeharka.

3.– Gastu hautagarriak baloratzeko, irizpide hauek izango dira kontuan:

a) Gastu hautagarriek lotura zuzena izan beharko dute programak xedetzat duen jarduerarekin, eta artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

b) Deskontuak eta antzekoak izanez gero, gastua gutxitu egingo da.

c) Gastu hautagarria euroa ez den moneta batekin baloratzen bada, ordainketa-dataren truke-tasara bihurtuko da.

d) Ez dira inolaz ere gastu hautagarritzat joko fabrikatu edo merkaturatutako produktuak, ezta eskatzaileak edo taldeko edota lotutako enpresek laguntza-eskatzailearekin egindako lanak ere, ekintzen edo parte-hartzeen bidez, zuzenean edo zeharka.

4.– Edozein kasutan, DAELren 30. artikuluekin bat datozenak oinarri hauetako esparruan diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira.

8. artikulua.– Lagun egitean diruz lagun daitezkeen gastuak (1. ildo).

1.– Lagun egiteko dirulaguntzari begira, gastu hautagarritzat joko dira hauek, betiere 100 euroko gutxieneko zenbatekoa gainditzen badute:

– Prestakuntza espezifiko eta enpresakoa. Ez-arautua barne, baldin eta proiektuarekin lotuta badago.

– Aholkularitza eta kanpoko laguntza teknikoaren gastuak.

– Prospekzio- eta dokumentazio-gastuak.

– Prospekzio komertzialeko azoka eta bidaietan parte hartzea.

– Maketa eta prototipoak egitea.

– Aurrekoen osagarri diren beste batzuk.

2.– Diruz lagun daitezkeen gastuak proiektuaren BIC tutoreak onetsi beharko ditu, eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Maketa eta prototipoen gastuek, oro har, ezingo dute gainditu onetsitako aurrekontu totalaren % 25.

b) Laguntza-eskaera egin ondoren eta gehienez ere 18 hilabeteko epean sortu beharko dira. SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak laguntza emateko ebazpenaren aurretik egin-dako gastuak hautagarritzat jo ahalko ditu ebazpenean, proiektuari hasiera eman ondoren, betiere 2025eko urtarrilaren 1aren ondoren egiten badira. Kasu horretan, 18 hilabeteko epea hautagarritzat jotako lehen gastuaren sortzapen-datatik aurrera hasiko da.

c) Ez da gastu hautagarritzat joko fakturan jasotako balio erantsiaren gaineko zerga.

d) Aurkeztutako proiektuaren esparruko aholkularitza adituak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

i.– Ezingo dira izan Administrazio Publikoen mendeko edo horiekin lotutako izaera juridiko propioko erakundeak.

ii.– Ezingo dute loturarik izan, ekintza edo parte-hartzeen bidez laguntzaren eskatzailearekin edo lankidetzaproiektuan sartutako enpresetako batekin. Halaber, ezingo dituzte horiek administratu, zuzenean edo zeharka.

3.– Gastu hautagarriak baloratzeko, irizpide hauek izango dira kontuan:

a) Gastu hautagarriek lotura zuzena izan beharko dute programak xedetzat duen jarduerarekin, eta artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

b) Deskontuak eta antzekoak izanez gero, gastua gutxitu egingo da.

c) Gastu hautagarria euroa ez den moneta batekin baloratzen bada, ordainketa-dataren truke-tasara bihurtuko da.

d) Ez dira inolaz ere gastu hautagarritzat joko fabrikatu edo merkaturatutako produktuak, ezta eskatzaileak edo taldeko edota lotutako enpresek laguntza-eskatzailearekin egindako lanak ere, ekintzen edo parte-hartzeen bidez, zuzenean edo zeharka.

4.– Edozein kasutan, DAELren 30. artikuluekin bat datozenak oinarri hauetako esparruan diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira.

9. artikulua.– Finantzaketa lortzea errazteko laguntzen xede diren inbertsioak (2. ildoak).

1.– Finantzaketa eskuratzeko erraztera bideratutako laguntzari begira (2. ildoak), inbertsioek bat egin beharko dute aktibo finkoko elementu berriei. Halaber, pertsona juridikoaren kapital sozialarekin autofinantzatu beharko dira gutxienez % 30ean, sinatu eta ordaindutako kapital-ekarpenaren bidez, dirulaguntzen bidez jasotako zatia zenbatu gabe.

2.– Honako hauek dira finantzatu beharreko inbertsioak:

a) Ibilgetu materiala, lurra eta eraikinak izan ezik.

– Lokalen erreforma eta egokitzapenak.

– Makinak.

– Ekipamendu-ondasunak.

– Tresneria.

– Ibilgailu industrialak.

– Instalazio teknikoak.

– Altzariak.

– Aktibo finko materialetako beste inbertsio batzuk.

b) Ibilgetu ukiezina.

– Aplikazio informatikoak.

– Jabetza industrialak.

– Jabetza intelektuala eta administrazio-pizgarrien kanonak edo frankiziak.

Ibilgetu ukiezinaren inbertsioak hautagarritzat joko dira soilik ibilgetu materialaren inbertsioak badaude.

3.– Edozein kasutan, DAELren 30. artikuluekin bat datozenak oinarri hauetako esparruan diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira.

4.– Finantzaketa errazteko eskuratzeko laguntzak (2. ildoak) erakunde onuradunek SPRIren, Luzaro Establecimiento Financiero de Crédito erakundearen eta autonomia-erkidegoko Administrazioaren artean sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren esparruan formalizatutako mailegu-eragiketen bidez artikulatuko dira.

5.– Hauek izango dira maileguen ezaugarriak:

Gutxieneko zenbatekoa: 40.000 euro.

Gehieneko zenbatekoa: 180.000 euro.

Interes-tasa: Euriborra sei hilabetera + % 1,25.

Amortizazio-epea: 7 urte.

Gabezia: 2 urte.

Kuotak: Hiru hilekoak, hiruhileko natural bakoitzaren amaieran.

Bermeak: Enpresa-proiektua egiteko konpromisoa.

Irekiera- eta azterlan-komisioa: Salbuetsita.

Xedapena: Erakunde laguntzaileak baimentzen duen neurrian, proiektuaren egikaritzearen arabera.

6.– SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak, zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, eragiketen epea eta gabealdia luzatu ahal izango ditu, gehienez hiru urtez, eragiketaren jatorrizko epeari dagokionez. Luzapen hori egingo da Luzarok edo enpresak egindako eskaeran oinarrituta, prestatzaileek ordaintzen egutegia betetzeko justifikatutako zailtasunei begira, eta jatorrizko mailegu-kontratuan atxikitako eranskinean formalizatuko da.

10. artikulua.– Laguntzen modalitateak eta zenbatekoak.

Deialdiaren xede diren laguntzak dirulaguntza gisa erabiliko dira.

1.– Negozio Berriak Sortzeko Plana egiteko (0. ildo), hautatu daitezkeen gastuen % 70 arte hartuko dira kontuan, gehienez ere 30.000 euro.

2.– Lagun egiteko (1. ildo), hauta daitezkeen gastuen % 100 arte hartuko dira kontuan, gehienez ere 30.000 euro.

3.– Finantzaketan sartzeko (2. ildo), honako hauek lagundu ahalko dira diruz:

– Emandako finantzaketa-zenbatekoaren % 20ko dirulaguntza.

– Mailegua formalizatu eta indarreko hiruhileko naturalaren amaieraren arteko aldiaren sortutako interesak, baita hiruhileko bakoitzean sortutako interesak ere, hurrengo 8 hiruhileko naturaletan zehar.

11. artikulua.– Laguntzak metatzea, mugak eta azpikontratazioa.

1.– Programa honetan jasotako laguntzekin batera beste laguntza bateragarri batzuk eskuratu ahal izango dira edo beste finantzabide komunitario batzuk, betiere gastu hautagarri berberetarako programa bakoitzean ezarritako gehieneko intentsitateak errespetatzen badira, banan-banan aztertuak.

2.– Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik zein administrazioak edo sektore publikoak emandako beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bat eginda, inolaz ere ezin da izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa. Beste laguntza publiko batzuen eta programa honen bidez emandakoaren batura kostu hori baino handiagoa bada, Programa honetan araututako laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, jardueraren gehiegizko finantzaketa saihesteko beharrezkoa den neurrian.

3.– Programa hau aplikatuz emandako laguntzak garrantzi txikiagoko edo minimis laguntzat hartzen dira.

4.– Erakunde onuradun batek jaso dezakeen minimis laguntza, guztira, ezingo da 300.000 eurotik gorakoa izan, hiru urteko edozein alditan.

5.– Minimis laguntzak ezin dira metatu gastu berberetarako estatutik jasotako laguntzekin, baldin eta batura hori laguntza baino handiagoa bada, edo kategorien arabera salbuespenen erregelamendu batean nahiz Europako Batzordearen erabaki batean kasuan kasuko inguruabarretarako ezarritako laguntzen zenbatekoa baino handiagoa bada.

6.– Muga horietako bat edo Programak ezarritakoren bat gaindituz gero, ematen den laguntzari soberako diru-kopurua kenduko zaio.

7.– Minimis laguntzak emandakotzat joko dira enpresari laguntza jasotzeko legezko eskubidea aitortzen zaion unean.

8.– Diruz lagundutako jarduerak hirugarrenekin azpikontratatzeari edo kontratatzeari.

DAELren 31.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ulertuko da onuradunak azpikontratatu edo kontratatatu duela baldin eta hirugarrenekin adosten badu dirulaguntzaren xede den jarduerari osorik edo zati batean egikaritzea. Kontzeptu horretatik kanpo gelditzen dira onuradunak diruz lagundutako jarduerari bere kabuz egiteko kontratatatu behar dituen gastuak. Horri dagokionez, hirugarrenak azpikontratatzeari edo kontratatzeari diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era iritsi ahal izango da, eta diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeko edo kontratatatzeko, aipatutako artikuluetan jasotako gainerako aurreikuspenak aplikatu beharko dira.

9. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

DAELren 30.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, diruz lagun daitezkeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiak kontratu txikira ezarritakoa baino eta hirugarrenekin kontratatzea dakarren guztietan, gutxienez hiru hornitzaile eskatu beharko dizkie eskaintzak onuradunak. Zerbitzu bat egiteko edo ondasun bat emateko konpromisoa hartu aurretik eskatu beharko dira eskaintzak, salbu eta merkatuan ez badago zerbitzu-ondasunok emateko edo hornitzeko behar beste erakunde (ezaugarri bereziak dituztelako), edo dirulaguntza jaso aurretik egin bada gastua.

Aurkeztutako eskaintzak hautatzeko, justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntza-eskaerari aurkeztu beharko direnak, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta, proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori memoria batean.

Aplikagarria den kasuetan, onuraduna enpresa denean, diruz lagundu daitezkeen gastuak DAELren 30.2 artikuluan ezarritako epeetan ordainduko dira.

12. artikulua.– Eskerak aurkeztea.

1.– Eskerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta oinarri hauetan inplikaturako gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren webgunearen bidez.

2.– Aipaturako egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri bide elektronikoz izapidetzeko jarraibideak, bai eta eskerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak ere.

3.– Laguntzaren eskaera eta eskaturako dokumentazioa aukeratzen den hizkuntzan aurkeztu daitezke. Gainera, laguntzen eskaeraren ondoriozko jardueretan eta prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak aurkeztu duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen arabera.

### 13. artikulua.– Laguntza eskatzea.

1.– Laguntzen onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten erakundeek SPRI-Enpresen Gara-penerako Euskal Agentziaren webgunean eskuragarri dagoen eskaera bete behar dute.

2.– Eskaera hori erakundea ordezkatzeko ahalordea duen pertsonak sinatu beharko du, sinadura elektronikoa aurreratu bidez (aitortutako ziurtagiri elektronikoa bidez).

3.– Laguntzaren eskaerak enpresa eskatzailearen identifikazio-datuak eduki beharko ditu, bai eta haren legezko ordezkariarenak ere.

### 14. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Aurreikusitako laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten erakundeek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Erakundearen ordezkari legalaren izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionala (NAN) edo atzerriarren identifikazio-zenbakia (AIZ).

b) Eratze-eskritura.

c) Sozietatearen ordezkariaren boterea.

d) Identifikazio fiskaleko txartela.

e) Ordainketak egin ahal izateko emandako kontu korrontearen banku-titulartasunaren ziurtagiria.

f) Erakundearen ordezkari legalaren erantzukizunpeko adierazpena. Erakundearen legezko ordezkariak egindako adierazpena, oinarri hauei eranskin gisa erantsi zaien eredu normalizatua-  
ren edukiaren arabera.

Horretaz gain, honako informazio hau aurkeztu beharko da:

– Aurreko hiru ekitaldi fiskaletan emandako minimis laguntzen zerrenda, emakida-data, organis-moa, programa eta laguntzaren zenbatekoa adierazita.

– Proiektu berdinerako eskatu diren edo erakunde publiko edo pribatuak eman dituzten lagun-tzen zerrenda, eskaeraren eta hala badagokio emakidaren data, organismoa, programa eta laguntzaren zenbatekoa adierazita.

g) Era berean, 0. ildorako:

– Datu orokorrak (aholkularitza espezializatua, jardueren proiektua, mugarriak, plangintza, par-taideak...) eta diruz lagun daitezkeen gastuen zenbatetsitako aurrekontua.

– Kotizazioen Likidazioen Zerrendaren (KLZ) agiria eta itxitako azken ekitaldiko Sozietateen Gaineko Zerga.

h) Horretaz gain, 1. ildorako:

– 1. fasea: datu orokorrak (proiektuaren jatorria, garatuko den produktua edo zerbitzua, xede den merkatua...) eta diruz lagun daitezkeen gastuen aurrekontu zenbatetsia eta inbertsio-, faktu-razio- eta enplegu-arloetako aurreikuspen-datuak, datozen hiru urteetarako.

i) Bestalde, 2. ildorako:

– Enpresa-lanaren kopia bat.

– Enpresa-talde baten kide izatekotan, taldearen eta zeharkako parte-hartzea duten beste sozietate batzuen sozietate-organigrama (ETE irizpidearen arabera: Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioa), parte-hartzearen ehunekoa adierazita.

– Eskatzailea ETE bat dela egiaztatzeko dokumentazioa, hau da, urteko enplegu-datuak, negozioaren bolumena eta balantze orokorra, bai enpresa eskatzailearena eta bai harekin lotutako gainerako enpresena ere, hala badagokio. Horrez gain, taldearen balantze globalak aurkeztu beharko dira, talde osoaren antolakuntza-eskemarekin, parte-hartzeekin, enplegu-datuekin, esportazio-zifrarekin eta balantzearekin, laguntzen eskaeraren aurreko bi ekitaldietakoa.

– 30.000 eurotik gorako laguntza-eskaeren kasuan, Erantzukizunpeko Adierazpena edo, hala badagokio, KAEOn izena emanda duen auditorearen ziurtagiria, edo Adostutako Prozeduren Txostena ordaintzeko epe legalei lotuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikulua betetzeari dagokionez, agindu horrek zehaztutako baldintzetan.

2.– Halaber, SPRIk eta finantza-erakundeak beste dokumentu batzuk eta informazio osagarria eskatu ahalko dituzte beharrezkotzat jotzen denean aurkeztutako eskaera ulertzeko, aztertze eta izapidetzeko.

15. artikulua.– Laguntza-eskaerak aurkezteko epea.

Laguntza-eskaerak aurkezteko epea oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta 2025eko abenduaren 11n, 17:00etan, amaituko da.

16. artikulua.– Emateko prozedura.

1.– Aurkezpena.

a) Erakunde eskatzaileak eskaera bete eta telematikoki bidaliko du.

b) SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak dirulaguntza esleituko dio BIC bati.

c) BICak egiaztatuko du informazio guztia zuzena dela, eta, hala badagokio, aldeko txostena egingo du.

2.– Kudeaketa.

a) Laguntza-eskaeren kudeatzea organo kudeatzaileak egingo du, espediente osorik dagoen unearen arabera. Organo kudeatzaileak BICen laguntza izango du; horrek eskaera ulertu eta aztertu ahal izateko behar adina dokumentazio edo informazio osagarri eskatu ahalko dio eskatzaileari.

Eskaerak hutsak baditu, ez bada oso-osorik bete edo ez bada atxiki eskatutako dokumentazioa, BICak edo SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak enpresa interesdunari eskatuko dio 10 eguneko epean hutsune horiek betetzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Gainera, adieraziko dio hori egin ezean eskaera bertan behera geldituko dela, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren aurretiazko ebazpenarekin, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoarekin bat.

b) BICek egin beharko dituzte aurkeztutako eskarien analisiak eta hasierako balidazioa, eta oinarri hauetako 18. artikuluan esleitutako funtzioen baitan, proiektua aztertze txostena egingo da Negozio Berriak Sortzeko Plana bada (0. ildo), eta enpresa-proiektua egin beharko dute lagun egiteko bada (1. ildo) eta enpresa-plana, finantzaketarako laguntza bada (2. ildo).

BICek enpresa eskatzaileak ETEak direla egiaztatuko dute, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan ezarritakoaren arabera – Aldizkari Ofiziala (DUE) 2003-05-20ko L 124 zk., 0036-0041 or.

BICek eskaerei buruzko txosten bat bidaliko diote proiektuan jarraipena egiteko sortutako batzordeari; hori Lurralde Historiko bakoitzean osatuko dute Eusko Jaurlaritzako, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako eta dagokion Foru Aldundiko kideek.

Batzordearen funtzionamenduarekin lotura duen guztian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Batzordeak proposamenak aztertuko ditu, sarrera-ordenaren arabera. Behin dagozkien espedienteak beteta, Programa honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko da.

Batzordeak hartutako erabakian oinarrituta, SPRIren Zuzendaritza Nagusiari zuzendutako laguntza emateko proposamena idatziko da.

4.— Mailegu formalizatuaren bidez inbertsioen finantzaketa lortzea erraztera bideratutako laguntzen eskaerak, hitzarmenaren babespean, Luzaro EFC erakundeari bidaliko dizkio SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak. Luzaro EFCk erakunde eskatzaileari eta SPRIri eskaerak onetsi edo ukatu dituen jakinaraziko die, jaso eta hilabeteko epean, eta, ondoren, SPRIk dagokion baiespen- edo ezeztatze-ebazpena egingo du.

### 3.— Ebazpena.

a) Prozeduraren ebazpena SPRIko Zuzendaritza Nagusiak emango du, eta eskaerak aurkezpen-ordenaren arabera ebatziko dira, beharrezko aurrekontu-kreditua dagoen bitartean.

b) Programan parte hartzeko baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak gaitzetsi egingo dira SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren ebazpenen bitartez, eta horiek enpresa eskatzaileei jakinaraziko zaizkie.

c) Gehienez ere 6 hilabeteko ebazpen-epea ezartzen da, dokumentazio osoa aurkezten denetik aurrera. Aipatutako epean ebazpenik ematen ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da.

d) Emandako laguntzen ezagutza orokorrerako, SPRIren webgunean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

e) Emakidaren ebazpenean onuradunari jakinaraziko zaio minimis laguntza dela.

### 17. artikulua.— Laguntzen likidazioa.

#### 1.— Negozio Berriak Sortzeko Plana lantzeko (0. ildo) eta Lagun Egiteko (1. ildo) laguntza.

a) SPRIk ordainduko du erakunde onuradunei emango zaien dirulaguntza, BICek emandako balorazioaren eta SPRIren ondorengo onespeneraren arabera.

b) Aldizka, eta gutxienez sei hilean behin, erakunde onuradunek proiektuaren egikaritzea justifikatu beharko dute, SPRIren aplikazio informatikoaren bidez (ondore horietarako, lehenengo seihilekoa laguntza onetsi eta hurrengo sei hilak izango dira).

Beharrezkoa izango da laguntza onesteko urtean gutxienezko likidazioa egitea, baldin eta urtea amaitu arte hiru hilabete baino gehiago igarotzen badira.

Azken likidazio-eskaera proiektua amaitu eta gehienez 3 hilabeteko epean aurkeztu beharko da, eta, edozein kasutan, 2027ko uztailaren 31 baino lehenago. Hiruhilekoko likidazio bat gutxienez aurkezten ez bada, erakunde onuraduna ez du onuradun izaten jarraituko.

c) Erakundea ordezkatzeko ahalordea duen pertsonak sinatu beharko du likidazio-eskaera, sinadura elektronikoko bidez.

d) Likidazio-eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Gastu eta inbertsio hautagarrien fakturak, kostuen banakapenarekin.
- Fakturen ordainketen ordainagiriak, kontuetan edo ordainketaren banku-ziurtagirian islatuta.
- Hala badagokio, emandako zerbitzuaren egiaztagiriak.
- Sei hilean behin: Negozio Berriak Sortzeko Planaren prestaketaren bilakaera, jardueraren memoriaren bidez.
- Lagun egiteko aldiaren amaiera: egindako Negozio Berriak Sortzeko Plana eta NBSP Abian Jartzeko Txostena, edo, 1. ildoaren kasuan, egindako enpresa-plana.
- Enpresa modu eraginkorrean egiten den unean, egin bada: sozietatearen eratzeako eskriturak eta IFZ.
- DAELren 30.3 artikulua aplikatuz, entitate onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.
- Jarduera horien finantzaketa, dirulaguntzarekin batera, funts propioekin edo beste dirulaguntza edo baliabideekin egin bada, diruz lagundutako jardueretarako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa egiaztatu beharko da.

Likidazioa ez bada guztiz betetzen edo ez bada haiekin batera eskatutako gainerako dokumentazioa aurkezten, SPRIk edo dagokion BICak erakundearen legezko ordezkariari eskatuko dio gehienez ere 10 egun balioduneko epean hutsune hori betetzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko.

2.– Finantzaketa lortzea errazteko laguntzen xede diren inbertsioak (2. ildo).

a) Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzari dagokionez, SPRIk 15 egun naturaleko epean ordainduko du, onuradunari SPRIren ebazpena jakinarazten zaionetik aurrera. Halaber, zenbateko hori Luzarok pignoratu du, finantzaketaren berme gisa Finantzaketarako baldintzak bete ondoren, adierazitako zenbatekoa onuradunari erantsiko zaio.

b) Luzarok SPRIri kobrantzaren berri ematen dionean, SPRIk enpresa onuradunari honako zenbateko hauek ordainduko dizkio:

- i.– Maileguaren formalizazio-dataren eta indarreko hiruhileko naturalaren amaieraren arteko aldian sortutako interesak.
- ii.– Hiruhileko bakoitzean sortutako interesak, hurrengo 8 hiruhileko naturaletan zehar.

Ordainketak zuzenean Luzaro finantza-erakundearekin harremanetan dagoen erakunde onuradunaren kontuan egingo dira.

c) Erakunde onuradunek laguntza emandako xederako erabiltzeko betebeharra izango dute, eta BICei honako dokumentazio hau emateko konpromisoa hartzen dute:

- i.– Sei hilean behin: inbertsioen egoeraren txostena, baita fakturen eta ordainagiriaren bidez egindako ordainketak ere.
- ii.– Sei hilean behin: jardueraren txostena eta enpresa-planaren exekuzioa, desbideratzeak, berrikuspenak eta doikuntzak.

18. artikulua.— Erakunde laguntzaileak.

1.— Oinarri hauetan jasotako araudiarekin bat ematen diren laguntzei dagokienez, EAEko BICak eta Luzaro erakunde laguntzaile izendatzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan («698/1991 Dekretua») eta DAELn ezarritakoaren arabera. Horrez gain, arau honetan eta lankidetzak-hitzarmenean jasotako zehaztasunak beteko dira.

2.— Hauek dira EAEn kokatutako BICak:

Araba:

– BIC Araba: Arabako Eraberrikuntza-Industrialdea AB – Centro de Empresas e Innovación de Álava SA.

Bizkaia:

– BIC Bizkaia Ezkerraldea: Centro de Desarrollo Empresarial de la Margen Izquierda SA.

– Bizkaiko Enpresa eta Aurrerapen Zentrua / Centro de Empresas de Innovación de Bizkaia (BEAZ SAU).

Gipuzkoa:

– BIC Gipuzkoa: Centro de Empresas e Innovación de Gipuzkoa (BIC Gipuzkoa Berrilan SA).

– Saiolan SA.

3.— BICak, erakunde laguntzaile gisa, honako funtzio hauez arduratuko dira:

a) Dokumentazioa aztertu eta proiektuak hasiera batean balioztatzea.

b) Onetsitako proiektuaren jarraipena eta tutoretza.

c) Ordainketa-proposamenaren analisia eta hasierako balioespena.

d) Finantzaketarako laguntzaren kasuan (2. ildo), enpresa-planak aztertzeako txostenak egitea eta horiek balorazio-batzordeari eta, hala badagokio, Luzarori bidaltzea.

e) Oinarri hauetako 20. artikuluan araututako laguntzaren baldintzak aldatzeko proposamenak.

f) Edonola ere, oinarri hauetan jasotako guztiak.

4.— Luzaro, erakunde laguntzaile gisa, honako funtzio hauez arduratuko da:

a) SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak bidalitako 2. ildoko proiektuak aztertzea.

b) SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari eta onuradunari horiek onespina edo gaitzespena jakinaraztea.

c) Poliza formalizatzea.

d) Enpresa onuradunei zuzendutako ordainketa igortzea.

e) SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari periodikoki onuradunen kuoten ordainketen eta sortutako arazoen berri ematea.

f) Edonola ere, oinarri hauetan jasotako guztiak.

19. artikulua.— Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.— Onuradunen betebeharrak dira DAELren 14., 27. eta 42. artikuluetan jasotakoak, eta zehazki eta xede mugatzailerik gabe, hauek:

a) Dirulaguntza ematea bidezko egiten duen jarduera gauzatzea edo dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.

b) SPRIri justifikatzea dirulaguntza ematea edo dirulaguntzaz baliatzea eragin duten baldintzak eta betekizunak betetzen direla eta jarduera aurrera eraman dela.

c) Emandako laguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntzaren emakidaren jakinarazpena jaso eta hamar egun balioduneko epean erakunde onuradunak ez badio espresuki uko egiten hari SPRIren aurrean, ulertuko da hura onartuta gelditu dela.

d) Emandako laguntza haren xede den jarduketa-plana garatzeko erabiltzea.

e) Onartzea SPRIk beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarri guztia eskatu ahal duela, eta SPRIk izendatutako langileek beharrezko eta komenigarritzat jotzen dituzten egiaztapenak egin ditzaketela euren instalazioetan, esleitutako laguntzaren xede den proiektua egikaritu dela eta eskatutako baldintzak bete direla egiaztatzeko.

f) Faktura guztiak gordetzea eta SPRIren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren esku jartzea bost urteko epean zehar, gastu hautagarriak egiten direnetik aurrera.

g) SPRIk egingo dituen egiaztatze-jarduketak onartzea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren, eta beste kontrol-organo eskudunen (nazioko zein komunitate-mailakoak) egiaztatze- eta kontrol-jarduketak ere, jasotako dirulaguntzei buruzkoak, aurreko jarduketak egitean eskatutako informazio guztia aurkeztuz.

h) SPRIri eta BICari eskaera edo dirulaguntza edo laguntzak jaso izana jakinaraztea, baita diru-sarrera edo baliabideak ere, hemen araututako laguntzen antzeko xedea badute, edozein Administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen eskutik jasotakoak. Jakin eta berehala jakinarazi beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

i) SPRIri laguntza esleitzeko kontuan hartutako edozein inguruabar aldatu dela jakinaraztea.

j) Honako hedapen-neurri hauek hartzea, dirulaguntzaren xede den programa, jarduera, inbertsio edo ekimenaren finantzaketaren izaera publikoari publizitate egokia emateko, DAELrekin bat:

– Publikoki hedatzeko dokumentu, kartel, propaganda edo argitalpenetan SPRIren logotipoa eta «SPRIk diruz lagunduta» esaldia agertu beharko da, honako esteka honetan eskura dagoen formatuari jarraikiz: <https://www.spri.eus/es/logo/>

– Diruz lagundutako jarduerarekin lotutako argitalpen, iragarki eta publizitatean bi hizkuntza ofizialak erabiltzea.

k) Diruz lagundutako proiektua gauzatzean sortzen diren dokumentuetan eta euskarrietan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista bermatzea.

l) Dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik eta hura ordaintzeko unean, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea, bai eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak ere, ogasun-gaietan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailburuaren aginduz erregelamendu bidez zehazten den moduan.

m) Izaera juridikoak hala eskatzen badu, kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu behar zaizkion merkataritza- eta sektore-legeek ezarritakoaren arabera, bai eta dirulaguntzen oinarri erregulatzaileek eskatzen dituzten kontabilitateko egoera-orriak edo berariazko erregistro guztiak ere, behar bezala egiaztatzen eta kontrolatzen direla bermatzeko.

n) Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzeko dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- edo kontrol-jardueren xede diren izan daitezkeelako.

o) DAELren 36. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funtsak itzultzea, edo diruz lagundutako jardueraren edo jarduketaren kostutik gora jasotakoa.

p) Ikuspegi intersektzionala eta, bereziki, sexuari eta generoari dagokion alderdia errespetatzen dituen hizkera eta irudiak erabiltzea dirulaguntza jasotzen duen jarduera edo proiektuak behar dituen agiri eta material guztietan. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista bermatzea, diruz lagundutako proiektua gauzatu bitartean sortzen diren dokumentu eta euskarri guztietan.

q) Diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duten argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean herritarren hizkuntza-eskubideak eta bereziki euskararen erabilera bermatzea.

r) DAELren 30.2 artikuluari jarraikiz, dirulaguntzaren onuraduna enpresa bat denean, merkataritza-eragiketek eragin dituzten eta diruz lagun daitezkeen gastuek enpresari aplikatzekoa zaion araudi sektorialean aurreikusitako ordainketa-epeetan ordainduta egon beharko dute, edo, halakorik ezean, Merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.

s) Onuraduna DAELren 48.1 artikuluan aurreikusitako egoeran dagoenean, deslokalizaziorik ez egitea.

t) Diruz lagun daitezkeen programen, jardueren, inbertsioen edo edozein motatako jarduketan finantzaketaren izaera publikoa behar bezala iragartzea, gardentasunari buruzko legedian ezarritako baldintzetan.

20. artikulua.– Laguntzak aldatzea eta epeak luzatzea.

1.– Aurreikusita dago dirulaguntza ematen duen organoak emandako dirulaguntza edo bere baldintzak aldatzea erabakitzea, ofizioz edo interesdunak eskatuta, aldez aurretik unean uneko egoeraren balorazioa eginda, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Dirulaguntza aldatzea interesdunak eskatuz gero, DAELren 14.e) artikuluan adierazitako betebeharra betez jakinaraztea onuradunak, jakin bezain laster eta, nolanahi ere, jasotako funtsen aplikazioa justifikatu baino lehen.

b) Zenbatekoa ez handitzea.

c) Egindako jarduera edo jokabidea edo egingo dena oinarri arautzaileen xedearen barruan egotea.

d) Aldaketa justifikatzen duten baldintzak onuradunaren borondatearen arabekoak ez izatea.

e) Aldaketa sustatu duten elementu eta baldintza berriak hasieran eman izan balira, dirulaguntza ukatzeko modukoak ez izatea eta aldaketa ez izatea hasieran onartutako proiektua erabat aldatzeko bezain handiak.

f) Hirugarrenen eskubideak ez urratzea.

2.– Onuradunak emandako dirulaguntza osoa edo partziala jaso badu, eta aldaketarekin zenbatekoa txikitzen bada, DAELren 40. artikuluan aurreikusitakoa jarraituko da.

3.– Halaber, programaren kudeaketaren arduradunak egin beharreko jarduerak gauzatzeko epea luzatu ahal izango du, baldin eta erakunde eskatzaileek hala eskatzen eta behar bezala justifikatzen badute; betiere 8. artikuluko 18 hilabeteko gehieneko epea gainditzen ez bada.

21. artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketak.

1.– Erakunde onuradunek oinarri hauetan eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritako baldintzak edo laguntzen emakidaren ebazpenean ezarritako baldintzak urratzen badituzte, emandako laguntza jasotzeko eskubidea galduko dute, eta SPRlri ordura arte jaso dituzten laguntzen zenbatekoa itzultzeko betebeharra izango dute; horrekin batera, dirulaguntzen arloan dagozkion berandutze-interesak ere ordaindu beharko dituzte, eta, beharrezkoa izanez gero, itzulketa hori lortzeko ekintza legalak abiaraziko dira. Halaber, enpresa hornitzaileari debekatu ahalko zaio programa honekin lotutako proiektu berriak egitea, egiaztatzen bada ez dagoela halakorik.

Erakunde onuraduna konkurtso-prozedura batean sartzen bada, SPRIk, eman dituen laguntza itzulgarriak berreskuratzeak, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren xedapenek aitortzen dioten lehentasuna izango du, eta, hala badagokio, itzultzeko betebeharraren erantzukizun subsidiarioa deribatzeak espedienteak hasi ahal izango dira pertsona juridikoen ordezkarien aurka, edozein izanik ere haien izaera, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Dirubilketa Errege-lamendua onartzen duen urtarilaren 12ko 1/2021 Dekretuaren 100.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Edonola ere, artikulua honetan aurreikusitako eraginetarako ez-betetzea izango da honako hau:

a) SPRlren baimenik gabe laguntza-eskaeran eta dokumentazio osagarrian aurreikusitako jarduketak aldatzea. Egikaritzearen edozein aldaketa ez bazaio SPRlri jakinarazten eta aldaketa horrek laguntzaren emakidaren azterketa-baldintzak aldatzen baditu, ez-betetzat joko da ondore horietarako.

b) Gastu hautagarriak epean ez justifikatzea edo ez betetzea programa honetan edo laguntza emateko ebazpenean eskatutako baldintzak.

c) Diruz lagundutako proiektua egikaritzeko ezarritako epeak gainditzea, betiere ez badago aldaketa- edo luzapen-baimenik.

d) Laguntza lortu izana programa honetan jasotako baldintzak bete gabe edo laguntzaren emakidari begira ezarritakoak urratuz.

e) Programan edo laguntzaren emakidan aurreikusitako kontrol-neurriei uko egitea edo oztopatzea.

f) Proiektua beste edozein modutan desbideratzea edo ez betetzea laguntzaren emakidaren ebazpenean ezarritako beste edozein betebeharrak.

g) DAELn aurreikusitako arrazoiak.

3.– SPRlri dagokio ez-betetzea egiaztatzeak espedienteak hasi, izapidetu eta ebaztea.

4.– Ez badira betetzen deialdi honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan jasotako betekizunak, tartean DAELren 51. artikulua ezartzen duen enpresen deslokalizazioaren adierazpenari buruzkoa, edo, hala badagokio, dirulaguntza emateko ebazpenean ezartzen direnak,

dirulaguntza ezeztatuko da ez-betetze espedienteak ireki ondoren eta, dirulaguntza edo berandutze-interesak itzuli beharko zaizkio SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari, DAELn xedatutakoaren arabera Eskubide Publikoko diru-sarrerak baitira, nahiz eta horrek ez duen eragotziko kasuan kasuko ekintza legalak abiaraztea eta dagozkion zigorrak ezartzea. Indargabetze- eta itzulketa-espedienteak (partziala edo totala) abiarazi eta ebaztea SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Zuzendaritza Nagusiari dagokio.

5.– Ezarritako baldintzak partzialki betetzen badira, eta betiere, onuradunaren jarduketak konpromisoak asebetetzen dituela egiaztatzen bada, dirulaguntza ordainduko da partzialki edo, hala badagokio, partzialki itzuliko da, eta kalkulaterakoan kontuan hartuko da egindako jardueraren proportzioa, guztizkoaren gainean. Nolanahi ere, onuradunak kobratzeko eskubidea duen kopuru partzialaren zenbatekoa bat etorriko da emandako dirulaguntzaren behar bezala justifikatutako zenbatekoarekin, justifikazioa egiaztatu eta erakunde emaileak onartu ondoren.

6.– Halaber, gainfinantzaketa badago ordainketaren ostean beste laguntza batzuk jaso izanagatik, programak helburu duen jardueraren kostua gainditzen duen laguntza zatia itzuli beharko da, 11. artikuluan araututakoari jarraiki. Kasu horretan, itzuli beharreko zenbatekoa zehaztuko da gertaera hori adierazteko eta itzulera erabakitzeke emango den ebazpenean.

7.– Halaber, bidezkoa izango da jasotako laguntza itzultzea onetsitako proiektu bat Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo exekutatzen bada.

8.– Aldi boluntario horretan itzulketarik egiten ez bada, premiamendu-bideari ekin ahal izango zaio, aplikagarria den legezko araudian xedatutakoaren arabera.

**AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.**– Aplikatu beharreko araudia.

Programa honi araudi hau aplikatuko zaio:

1.– 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

2.– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa, eta, aplikatzekoa den kasuetan, 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

3.– 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Elkartearen Aurrekontu Orokorraren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaiki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.

4.– Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, 2023ko abenduaren 23koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

**AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA**

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean eta datu pertsonalak babesteko gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorritik, jakinarazten da emandako datuak SPRIk tratatuko dituela eta haren Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko direla.

Tratamendu horren helburua, deialdiaren interes publikoan eta parte hartzeko eskabidean oinarritua, eskatutako laguntzaren espedienteak kudeatzea da. Datu pertsonalak tratatzeko oinarri

juridikoa da SPRIk duen interes publikoa, SPRI Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia sortzeko estatutuetan ezarritako helburuak betetzeko.

Informazio hori gaian eskumena duen Administrazio Publikoari eta SPRI Taldeko enpresei laga ahal izango zaie.

Laguntza emateko espedientea izapidetzen den bitartean eta legez eska daitekeen epean gordetako datuak, legezko betebeharrak bete ahal izateko.

Interesdun guztiek eskubidea izango dute datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunari aurka egiteko edo tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko, bai eta datuak babesteko araudi aplikagarrian aurreikusitako beste edozein eskubide ere, eskubide horiek aplikagarriak direnean, honako helbide elektroniko honetara idatziz bidalita: [lop@spri.eus](mailto:lop@spri.eus). Era berean, interesdunak Datuak Babesteko gure ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango dira, idatzizko komunikazioaren bidez, helbide elektroniko honetan: [lop@spri.eus](mailto:lop@spri.eus)

Era berean, interesdun orok du edozein erreklamazio aurkezteko eskubidea dagokion kontrol-agintaritzan, eta SPRIren kasuan, Datuak Babesteko Euskal Agintaritza izango da: [www.avpd.euskadi.eus](http://www.avpd.euskadi.eus)

SPRIk Datu Pertsonalen Babeserako esparruan egiten duenaren inguruko informazio gehigarriaren eta xehakatuaren berri izateko, jo <https://www.spri.eus/lege-oharra/> webgunera.

#### AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak oinarri hauekiko hartzen dituen erabakiek administrazio-izaera dute, eta, beraz, eskumeneko jurisdikzioa administrazioarekiko auziena izango da.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA

Onuradunek programa honen bitartez esleitutako dirulaguntzaren jatorriaren publizitate egokia eman beharko dute, 19. artikuluan zehaztutako baldintzetan.

## I. ERANSKINA

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDU NORMALIZATUA

Nik, [izen-abizenak] jaunak/andreak (NAN-zk. –indarrean–: [...]; IFK: [...], eta egoitza sozialaren helbidea: [helbidea]) [erakunde eskatzailearen izena](r)(e)n izenean, hau adierazten dut:

I.– Programa honen xede den laguntza lortzeko indarreko araudian ezarritako baldintzak betetzen ditut, eta, zehazki:

– Aurreko hiru urteetan jaso ez izana 300.000 eurotik gorako minimis laguntzarik.

– Eskaera honetatik dagokion atalean alderdi hauei buruzko informazioa jasota egotea:

a) Aurreko hiru ekitaldi fiskaletan emandako minimis laguntzen zerrenda, emakida-data, organismoa, programa eta laguntzaren zenbatekoa adierazita.

b) Proiektu berdinerako eskatu diren edo erakunde publiko edo pribatuek eman dituzten laguntzen zerrenda, eskaeraren eta hala badagokio emakidaren data, organismoa, programa eta laguntzaren zenbatekoa adierazita.

– Ez egotea oinarri hauetako 5. artikuluko 4. apartatuan aurreikusitako egoeretako batean, hau da:

a) Sektore publikoren bateko kide direnak, aplikatu beharreko erakunde-sailkapeneko arauen arabera.

b) DAELren 13. artikuluan aurreikusitako egoera eragozleren batean dauden erakundeek.

a) Epai irmo bidez, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera kondemnatuak izatea, edo prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hiri-gintza-delituak egiteagatik.

b) Borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo izana, konkurtsoan deklaratura egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren mende egotea edo desgaituta egotea Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia amaitu gabe.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana, horren erruduntzat jo direlako.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legean, Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguren bat dutenak izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

e) Indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea, erregelamendu bidez zehazten den moduan.

f) Erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean izatea zerga-egoitza.

g) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ez izatea, erregelamendu bidez zehazten den moduan.

h) Lege honen edo beste batzuen arabera dirulaguntzak lortzeko aukera galtzearekin ebazpen irmo baten bidez zigortua izatea. Zehazki, ezin izango dira dirulaguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile izan sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako aldian. Era berean, ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plana edukitzera behartuta egonda ere ez daukatenean, ez eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurririk ezarri ez duten 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritako baldintzetan.

i) Pertsona fisikoa edo juridikoa, publikoa edo pribatua, ez egotea zigortuta Ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste larri edo oso larriagatik, administrazio-bidean ebazpen irmo baten bidez, harik eta neurri zuzentzaile egokiak gauzatu eta zehapena bete arte.

j) Desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota bete izana, kuota hori betetzeko neurri alternatiboak martxan jarri izana egiaztatu gabe.

c) Enpresa-proiektu berrien sustapenaren, inkubazioaren edo azelerazioaren arloetan jarduera garatzen dutenak.

d) Europako Batzordeak laguntza bat lege kanpoko delat edo barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak erreuperatzeko agindu baten menpe egotea.

e) LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatzea, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, trans pertsonen berdintasun erreal eta eragingarriko eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

f) 2. ildoaren kasuan bakarrik, abenduaren 29ko 3/2004 Legean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituenen, aurreikusitako ordainketa-epeak ez betetzea.

– Adierazpen honek barne hartzen ditu eskatzaileak Programaren oinarrietako 11.9 artikuluan adierazitakoa betetzeari buruzko konpromisoak, hau da, enpresak deslokalizatuta ez egoteari buruzkoak, DAELren 49. artikuluen arabera, eta gainfinantzaketarik ez izateari buruzkoak, DAELren 9.4.h) artikuluen arabera.

II.– Betetzen ditut indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

– Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten ditudan agiri guztiak ere, eta neure gain hartzen dut horren erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

III.– Erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehatza ez bada edo faltsua bada edo funtsezko zerbait falta bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa edo komunikazioa, ezinezkoa izango da eragindako eskubidea baliatzen edo jarduera egiten jarraitzea gertakari horien berri izaten den unetik aurrera, eta, gainera, erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak egon daitezke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren arabera.

[....] Goian jasotako adierazpenen edukia onartzea.